

URIBE BUTROE ZERBITZU MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUAK

ZIOEN AZALPENA

Apirilaren 2ko Toki Eraentzaren Oinarriak Arautzen dituen 1985/7 Legearen 44 artikulua ezarri bezala, eta Bizkaiko Udalez Gaindiko Eremuko Erakundeak Araupetzeari buruzko martxoaren 30eko 1995/3 Foru-Arauaren 1go artikuluan ezarritakoarekin bat eginez, Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe eta Meñakako Udalek, denak Bizkaiko probintzian kokaturik, borondatezko udalez gaindiko Mankomunitatea eratzen dute, euren eskumenpekoak diren eta Estatutu honetan jasotzen diren obra, zerbitzu edo ekintzak modu erkidean antolatu eta eskaintzeko.

Mankomunitateak bere helburu zehatzak bete ahal izateko beharrezkoak diren nortasun eta gaitasun juridikoak izango ditu eta Estatutu honetan jasotakoak eraenduko du.

I TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

I KAPITULUA

1. artikulua.- Izena eta Egoitza.

Aipatutako Mankomunitatearen izena "Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatea" izango da eta bere behin-behineko egoitza sozial eta bilera lekua Maruri-Jatabeko Udalean izango du, Erdigune Auzoko 68 zenbakian.

2. artikulua.- Mankomunitatearen lurralde eremua.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen lurralde eremua, Mankomunitate horren kideak diren udal mugarteek osatzen dute. Betiere udal berrien sarrerarako dagoen aukera kontuan izanik lurralde eremu hori egokitu egingo da.

3. artikulua.- Iraupena.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatea iraupen zehatzik gabe eratzen da.

2.- Mankomunitatea osatzen duten Udalek, gutxienez, legislaturak iraun artean egon beharko dute Mankomunitatean.

II KAPITULUA OBJEKTUA

4. artikulua.- Helburuak.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatea bere eskumenpeko zerbitzu, obra edo ekintzen kudeaketarako sortzen da, betiere kudeaketa hori burutu ahal izateko Mankomunitatea osatzen duten udalen akordioa beharrezko delarik. Zerbitzu, obra eta ekintza horiek hurrengo gaiei buruzkoak izango dira:

a).- Udalerri guztien baterako Tokiko Agenda 21-en diagnostikoa, eraketa eta garapena eta udalerrien toki ekintzen planak burutzea.

b).- Herri hondakin solidoen eta udalerrien eskumenpekoa den beste edozein hondakinen bilketa. Hondakin horien birziklatze eta kudeaketa.

c).- Ingurugiroa babesteko planak eratu eta garatu eta horren jarraikako garapena, hori babesteko beharrezko diren neurriak hartzea eta espediente, prozedura eta ordenantzen eraketa.

d).- Gainontzeko Ingurugiro gaietan udalerriei laguntza eskaintzea.

e).- Udalerrien kultura, kirol eta gazteriaren inguruko jardura planen eraketa, kudeaketa eta garapena.

f).- Kultur gaietan udalerriei laguntza ematea.

g).- Turismo gaietan udalerrarengan eragina izan dezaketen arloen garapen eta kudeaketa eramatea eta Uribe Butroe turistikoki bultzatzea.

h).- Gizarte Ekintzarekin zerikusirik izan eta Udalerriengan eraginik izan dezakeen edozein gai. Gizarte Larrialdietarako Laguntza, Oinarrizko Errenta, etab.-en emate eta kudeaketa.

i).- Zerbitzu Mankomunitatea osatzen duten udalerriei administrazio aholkularitza ematea.

j).- Uribe Butroe gunean Euskararen bultzatze eta erabilpenerako jarduerak burutzea.

k).- Kontsumo gaietan Mankomunitatea osatzen duten udalerriei aholkularitza ematea. Uribe Butroeko udalerrietako erabiltzaile eta kontsumitzaileek egindako kexak izapidetzea.

l).- Mankomunitatea osatzen duten udalerriek horren jardueretan barneratutako beste edozein ekintza.

2.- Zerbitzu berriak kudeatzeko Mankomunitatea osatzen duten Udal guztien onarpena behar da. Onarpen hori Osoko Bilkuran hartu beharko du Udal bakoitzak, legezko kide kopuruaren gehiengo osoz.

3.- Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitateak, Legeak aurreikusitako Toki Erakundea den legez, indarrean dagoen legeriak, ezaugarri hauek dituzten erakundeei euren helburuak betetzeko ematen dizkien eskumen guztiak izango ditu. Hala ere, Mankomunitateak ezingo ditu hori osatzen duten Udalen eskumenak bere osotasunean egikaritu.

4.- Mankomunitateak indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarritako moduetatik edozeinen bidez eskaini, ustiatu eta kudeatu ditzake zerbitzuak.

5.- Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitateak, bai bakarka eta baita erkidegoan arituz, hitzarmen, kontratu eta akordioak sinatu eta Estatuarekin, Probintziarekin, Udalekin edo zuzenbide publiko edo pribatuko beste erakunde batzuekin partzuergoak eratu ahal izango ditu, Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitatearen funtzio zehatzak burutu eta horiekin elkar lanean arituz, Erakunde horiek Mankomunitateari edo hori osatzen duten erakundeei eskaini ahal dizkien zerbitzuak lortzeko helburuarekin.

III KAPITULUA. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANAK

5. artikulua.- Administrazioen arteko harremanak.

1.- Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitatearen eta gainontzeko administrazio publikoen arteko elkarkidetzak ekonomiko, tekniko eta administratiboa, horiek buruturiko hitzarmen administratiboen bidez garatuko da.

II TITULUA. URIBE BUTROER ZERBITZU MANKOMUNITATEAREN ORGANOAK

I KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

6. artikulua.- Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitatearen Organoak.

1.- Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitatearen Organoek Mankomunitatea osatzen duten Udalak ordezkatzeko dituzte.

2.- Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitatearen Gobernuak eta Administrazioak hurrengo organoei dagokie:

a) Lehendakaritza eta lehendakaritza ordea.

- b) Zinegotzien Bilkura.
- c) Gobernu Batza.

II KAPITULUA ZINEGOTZIEN BILKURA

7. artikulua.- Zinegotzien Bilkuraren osaera.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Zinegotzien Bilkura, Mankomunitatea osatzen duten udalen ordezkaria izango da, eta udalek, euren Osoko Bilkuran, aukeratutako bokalek osatuko dute.

Mankomunitatea osatzen duen Erakunde bakoitzak euren Udaleko zinegotzi kopuruaren proportziozko bokal kopurua izango du Zinegotzien Bilkuran eta horiek Udalen Osoko Bilkurek aukeratuko dituzte, Udala osatzen duten kideen gehiengo osoz, Mankomunitatearen behin-betiko Estatutuak onartu eta hurrengo hilabeteko epean.

Osoko Bilkuran 9 zinegotzi dituzten Udalek, Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Zinegotzien Bilkuran 2 zinegotzi izango dituzte eta euren Osoko Bilkuran 7 kide dituzten udalen kasuan ostera, Zinegotzien Bilkuran izango duten ordezkariak zinegotzi bakarrekoa izango da.

2.- Udalek Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen ordezkari bakoitza ordezkari bakoitza duen bokal bat izendatuko dute eta horrek titularrak dituen eskumen berberak izango ditu.

3.- Bokal horien legealdia, dagokion Udalari dagokionaren berdina izango da. Zinegotzien Bilkurako Bokalek, izaera hori euren Udaleko Zinegotzi izaera galtzerakoan, edo ordezkari bakoitzak Udalaren Osoko Bilkuraren erabakiaren ondorioz galduko dute, euren izendapenerako jarraitutako izapide berdinak burutuz.

8. artikulua.- Ordezkarien izendapena eta epeak.

1.- Toki hauteskundeak burutu eta Mankomunitatea osatzen duten Udalen eraketa batzarraldia egin eta hurrengo 30 egunen buruan, Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateko Bokal ordezkariak aukeratuko dira, Mankomunitateari horren berri eman behar zaiolarik.

Dagokion Udal Erakundeak ez balu inolako ordezkari izendatu, Zinegotzien Bilkurak izendatuko du, Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen kideen gehiengo osoz.

2.- Zinegotzien Bilkura berria eratu artean aurreko Bilkura eta Lehendakaria arituko dira horri dagozkien lanetan.

3.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Zinegotzien Bilkuraren eraketa batzarraldia Mankomunitatea eratzen duten Udalek euren ordezkaria

izendatzeko duten epea bukatu eta hurrengo hamar egunetan egin beharko da. Horretarako, jardunean ari den Lehendakariak, beharrezko diren aholkuak eraginda, bost egun balioduneko aurrerapenarekin deialdia egingo du. Deialdia beharrezko aurrerapenarekin egingo ez balitz, eraketa batzarraldia Mankomunitatea osatzen duten Udalek, ordezkariak izendatzeko duten epea bukatu eta hurrengo hamargarren egun baliodunean, 13.00etan, egingo da.

4.- Zinegotzien Bilkura berriaren eraketa data arte Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen kudeaketa arrunta baino ezin izango da egin.

9. artikulua.- Kideen kargugabetzea.

1.- Zinegotzien Bilkuraren kideen kargugabetzea hurrengo kasuetan gertatuko da:

- a) Dagokion Udalaren legealdia bukatzearen ondorioz. Kasu horretan, Zinegotzi Bilkuraren bokal izaten jarraitu beharko du, administrazio arruntaren lanetarako bakarrik eta horren ondorengoak izendatu artean behinik behin. Ezingo da epe honen barruan, legearen arabera, gehiengo kualifikatua behar duen erabakirik hartu.
- b) Judizio epai tinko, heriotza, ezintasun edo dagokion Udalaren Osoko Bilkura edo Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Zinegotzien Bilkuraren zinegotzi edo bokal karguaren uko egitearen ondorioz. Kasu horretan, dagokion Udalaren Osoko Bilkurak Estatutu hauetako 8.1 artikuluan jasotako baldintzak jarraituz ordezkari berri bat izendatu beharko du.

10. artikulua.- Zinegotzien Bilkuraren eskumen eta ahalmenak.

1.- Zinegotzien Bilkurari hurrengo eskumenak dagozkio:

- a) Zentsura mozio bidez Lehendakaria izendatu eta kargutik kentzea, eta hauteskunde legeria orokorrak xedatutakoari jarraituz, horrek aurkezturiko konfiantza auziari dagokion botazioa.
- b) Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen gobernu organoen ekintzak kontrolatu eta fiskalizatzea.
- c) Kontzertatu gabeko organoen eraketa, egoitzaren aldarazpena, Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen izenaren aldarazpena, edo bere logotipoa.
- d) Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateari dagozkion erregelamendu organiko eta bestelako xedapen orokorren onarpena.
- e) Tributu izaeradun baliabide propioak zehaztea, Aurrekontuak onartu eta aldaraztea, bere eskumenpeko gaietan gastua bideratzea eta Kontuak onartzea.
- f) Zerbitzu publikoen kudeaketa moduaren eta munizipalizazio espedienteen onarpena.
- g) Beste Administrazio publikoek egindako eskumen delegazioen onarpena.

- h) Langileria eta Lanpostuen Zerrenda onartu, funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldizkako zenbatekoa eta behin-behineko langileriaren kopuru eta erregimena zehaztea.
- i) Judizio eta administrazio bidezko akzioen egikaritzea eta Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen defentsa Zinegotzien Bilkuraren eskumenpeko gaietan.
- j) Koordinazio eta elkar lanerako beste Administrazio Publikoekin burututako Hitzarmenen onarpena.
- k) Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateak buruturiko egintzen kalte aitortzea.
- l) Jabetza publikoko ondasunen kalifikazio juridikoaren aldarazpena.
- m) Tributu izaerako baliabide propioen zehaztapenaren onarpena.
- n) Mankomunitatearen kideen onarpena eta banatzea.
- o) Nazio habilitazioa duten funtzionarioen lehiaketarako merituen zehaztea.
- p) Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatea osatzen duten Udalen urteroko ekarpen ekonomikoak zehaztea.
- q) Kreditu eta berme operazioak hitzartzea, baliabide arruten %5a baino gehiagoko zenbatekoa duten kentze eta itxarroteak ematea eta judizioz kanpoko kredituak aitortzea, aurrekontu zuzkidurarik badago behintzat.
- r) Obra, zerbitzu eta hornidurak kontratatzea, salbu eta Lehendakariari dagokionean.
- s) Obra eta zerbitzu proiektuen onarpena, horien kontratazio eta kontzesiorako eskumena duenean eta Aurrekontuetan aurreikusita ez dagoenean.
- t) Ondasunak eskuratu eta saltzea, eskumen hori Lehendakariari ez dagokionean.
- u) Gehiengo berezi baten bidezko onarpena behar izatearen ondorioz Bilkurari dagozkionak.
- v) Indarrean dagoen legeriak Udal Osoko Bilkurari eskaintzen dizkion beste ahalmenak.

III KAPITULUA LEHENDAKARIA

11. artikulua.- Lehendakaria izendatzea.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Lehendakaria mankomunitate administrazioaren goi burua da, Gobernu Batza gidatzen du eta Udal arteko Erakundea ordezkatzeko du.

2.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen eta Gobernu Batzaren Lehendakaria Mankomunitatearen kideetako bat izango da eta legislatura bakoitzaren hasieran Lehendakari berria izendatuko da, Zinegotzien Bilkuraren kideen gehiengoz. Inola ere ez da Lehendakari aukeratuko bigarren legealdi batean, aurreko legealdian Lehendakari izendatutakoa.

12. artikulua.- Lehendakaria kargutik kentzea.

1.- Lehendakaria kargutik kentzeko jarraitu beharreko prozedura eta indarreko legeriak Alkatea kargutik kentzeko araututako prozedura berdina izango dira.

13. artikulua.- Lehendakariordea.

1.- Lehendakariordeari dagokio Lehendakaria bere funtzio guztietan ordezkatzea, azken hori bete gabe dagoenean edo beteta egonda ere hori ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo ezintasunen batek ezinezko egiten dionean bere ahalmenen betepena. Ordezkatze hori Lehendakari postua bete gabe egon eta Lehendakari berriak kargua bete arte burutuko da.

2.- Lehendakariordea Udal ordezkarien artean aukeratuko da, Zinegotzien Bilkuraren kideen gehiengoaz.

14. artikulua.- Lehendakariaren eskumen eta ahalmenak.

1.- Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitatearen Lehendakariak hurrengo ahalmenak izango ditu:

- a) Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitatearen gobernu eta administrazioa gidatzea.
- b) Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitatea ordezkatzeko.
- c) Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitatearen organo guztien batzaraldiak deitu eta gidatzea (kalitatezko botoarekin).
- d) Berdinketa kasuak kalitatezko boto bidez erabakitzea, bigarren botazioa eginda dagoenean.
- e) Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitatearen zerbitzu eta obrak gidatu, ikuskatu eta bultzatzea.
- f) Idazkari eta Kontu-hartzaileak lagunduz Aurrekontuen Proiektua egitea, eta urtero azaroaren 1a baino lehen Zinegotzien Bilkuraren aurrean aurkeztea.
- g) Bere eskumenpeko gaietan gastuak egikaritu eta ordainketak agintzea, sarreren formalizazioa dakarten agiriak baimentzea eta kontuak agertzea, eta baita onarturiko aurrekontuaren arabera garapen eta kudeaketa ekonomikoa gauzatzea.
- h) Zinegotzien Bilkurak onartutako aurrekontu eta langileriaren arabera lan eskaintza publikoa onartzea, langileria hautatzeko eta lehiaketa bidez lanpostuak betetzeko frogan oinarriak onartzea eta finko eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak zehaztea.
- i) Langileriaren goi burua izatea, eta bere izendapen eta zehapenak onartzea, Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitatearen funtzionarioak zerbitzutik banatzea eta langileria laboralaren kaleratzea. Azken bi kasuetan Zinegotzien Bilkurari horren berri eman beharko zaio, burututako lehenengo batzaraldian.
- j) Judizio eta administrazio bidezko akzioen egikaritzea eta Uribe Butroer Zerbitzu Mankomunitatearen defentsa bere eskumenpeko gaietan, nahiz eta beste organo baten delegatu, premiazko kasuetan eta azkenik, Zinegotzien Bilkuraren eskumenpekoak diren kasuetan, baldin eta

horren berri ematen bazaio horren berrespenerako egiten den lehenengo batzarraldian.

- k) Lehendakariaren eskumenpekoak diren gaietan Zinegotzien Bilkurari kalte aitorpena proposatzeko ekimena.
- l) Lehendakariak bere erantzukizunpean beharrezko diren neurri egokiak hartzea Mankomunitatearen interesak arriskuan dauden kasuetan. Kasu horretan, Behin-behineko Batzordeari edo Zinegotzien Bilkurari jakinarazi beharko zaio, eskumenen egikaritzea zein den kontutan izanik.
- m) Agintaritzari desobedientziak edo udal ordenantzen inguruko arau-hausteak zehatzea, salbu eta eskumena beste organo batzuei dagokien kasuetan.
- n) Obra, zerbitzu eta hornidurak kontratatzea, horien prezioak Aurrekontuaren %5a gainditzen ez duten kasuetan eta nahiz eta zenbateko hori gainditu urtebete baino gehiagoko luzapenik ez duten kontratuak, baldin eta ekitaldiko Aurrekontuan kontsignatutako kreditua baino gehiago ez bada behar.
- o) Obra eta Zerbitzu proiektuen onarpena, horiek kontratatu edo horien kontzesioa burutzeko eskumenik badu eta Aurrekontuan aurreikusten badira.
- p) Ondasunen ordain bidezko eskuraketa, eskuratze horren zenbatekoa Aurrekontuaren baliabide arrunten %5a baino handiagoa ez denean.
- q) Ondasunen salmenta, horren zenbatekoa Aurrekontuaren baliabide arrunten %5 baino handiagoa ez denean.
- r) Ondasunak dohainik eskuratzea.
- s) Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen akordioen argitarapena eta exekuzioa agindu eta akordio horiek betearaztea.
- t) Organo zehatz bati atxiki gabe, Erregelamendu Organikoak aintzat hartutako beste edozein eskumen, Legeak Toki Erakundeentzako aintzat hartutako beste edozein eta bere eskumenpeko ahalmenak egikaritu ditzan, Alkateari eskainitakoak.

15. artikulua.- Eskumenen eskuordetzea.

1.- Lehendakariak, Zinegotzien Bilkura deitu eta gidatu, kalitatezko boto bidez berdinketak erabaki eta langileriaren goi burutza kenduta, beste eskumen guztiak eskuordetu ditzake.

2.- Lehendakariak bai Batzorde Iraunkorrean, organo kolegiatu den aldetik, eta baita Batzorde horretako kideetatik edozeinetan eskuordetu ditzake bere eskumenak modu generikoan. Halaber, Zinegotzien Bilkuraren bokaletatik edozeinen alde ere burutu dezake eskuordetze berezia, horrek gai zehatz batzuen zuzendaritza eta kudeaketa eraman ditzan.

IV KAPITULUA GOBERNU BATZA

16. artikulua.- Gobernu Batzaren osaketa.

1.- Gobernu Batza Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Lehendakariak, Lehendakariordeak eta Bokalak osatuko dute. Azken hori Zinegotzien Bilkuraren kide izango da. Idazkari Orokorrak ere osatuko du Gobernu Batza, nahiz eta ahotsa izan arren, boto eskubiderik izan ez.

2.- Batzaren osaketak, Zinegotzien Bilkuran ordezkaturik dauden Udalen, eta Gobernu Batzan dauden talde politiko ezberdinen arteko proportzionaltasuna gordeko du.

3.- Gobernu Batza, Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen organo kolegiatu den aldetik, Mankomunitatea osatzen duten Udalen 3 ordezkari izan osaturik egongo da.

Batza, Zinegotzien Bilkura berritzean berrituko da, eta zatika ere berritzen joango da, Legeak ezarritako edozein kariren ondorioz bertako ordezkari karguren bat hutsik geratutakoan, edo Udaletatik edozeinek bere ordezkarietatik baten bat ordezkatzeari erabakitakoan.

4.- Gobernu Batzari dagokio, Lehendakariari aholkularitza iraunkorra emateaz gain, Zinegotzien Bilkurak edo Lehendakariak eskuordetutako edozein eskumen egikaritzea eta Erregelamendu Organikoak aitortutako informazio, irizpen, ikerketa eta kontrol funtzioak burutzea.

5.- Gobernu Batzaren idazkari funtzioak Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Idazkariak burutuko ditu. Idazkari hori Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Lehendakaria den Udalaren Idazkaria izango da.

17. artikulua.- Idazkaria.

Idazkari, Kontu-hartzaile eta Diruzain karguak Toki Administrazioaren nazio habilitazioa duten eta Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Lehendakaria zein Udalekoa izan eta bertako funtzionarioek beteko dituzte. Etorkizunean Udal arteko Erakundearen langileria propioa osatzeko aukera ere gordeko da.

18. artikulua.- Akta liburua.

Idazkariak Udalei eskaturiko formalitate berdinak beteko dituen akta liburu bat eta kontabilitatea eramateko betebeharra ditu.

19. artikulua.- Gobernu Batzaren eskumenak.

1.- Gobernu Batzak Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateak berak sortu beharreko zerbitzuen instalakuntza eta funtzionamenduak eskatzen dituen akordioak hartzeko eta Mankomunitatea osatzen duten Udalek jadanik harturik

dituzten akordioak bereganatzeko, edo Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatea osatzen duten Udalen kontzertuen gainean beharrezko den beste edozein kontzertu ezartzeko eskumena izango du, baldin eta legeak ezarritako baldintzak betetzen baditu.

2.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Gobernu Batzak aurrekontua osatuko du, horretarako Udalei aplikagarri zaizkien arauak ezarriz. Batzaren Lehendakariak ordainketak agindu eta Toki Ogasunen Eraentza jasotzen duen abenduaren 28ko 1988/39 Legeak eta Toki Eraentzaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7 Legeak jasotako ekonomia arloko beste funtzioak egikaritzeko ahalmena ere izango du.

III TITULUA **GOBERNU ORGANOEN FUNTZIONAMENDUA**

20. artikulua.- Zinegotzien Bilkuraren batzarraldien eraentza.

1.- Zinegotzien Bilkura aurrezarritako aldizkakotasuna duten batzarraldi arrunten bidez eta premiazkoak izan daitezkeen ez-ohiko batzarraldi bidez arituko da.

2.- Zinegotzien Bilkurak gutxienez, hiru hilabetero burutu beharko du batzarraldi arrunta. Muga hori aintzat hartuz, Zinegotzien Bilkurari dagokio batzarraldi horien aldizkakotasuna eta hori egiteko egun eta orduak erabakitzea. Horretarako eraketa batzarraldia egin eta hurrengo hogeita hamar egunen buruan lehendakariak deitutako ez-ohiko batzarraldian hartutako akordioa hartuko da. Ez-ohiko batzarraldiak Lehendakariak hala erabakitakoan edo gutxienez bokalen legezko kopuruaren laurden batek hala eskatutakoan burutuko dira. Azken kasu horretan batzarraldia eskatu eta 15 egun baliodunen barruan egin beharko da.

3.- Zinegotzien Bilkuraren batzarraldiak gutxienerako bost egun balioduneko aurrerapenez deitu behar dira. Deialdian eguneko ordena jasoko da.

4.- Zinegotzien Bilkura baliozkotasunez eratzeko bere kideen legezko kopuruaren heren bat bertaratzea da beharrezko. Quorum hori batzarraldi osoan zehar mantendu beharko da.

5.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Lehendakaria eta Idazkaria edo legez horiek ordezkatzak dituztenak bertaratu behar dira.

21. artikulua.- Akordio sistema.

1.- Mankomunitate honen egintza eta akordioei, Toki Eraentzari buruzko indarrean dagoen legeriak jasotako toki erakundearen funtzionamendu eta eraentza juridikoari buruzko xedapenak aplikagarri izango zaizkie.

2.- Zinegotzien Bilkuraren akordioak bertaratutako kideen gehiengo sinplez hartuko dira orokorrean. Gehiengo sinplea aldeko botoak kontrakoak baino gehiago direnean ematen da.

3.- Zinegotzien Bilkurak hartutako erabakiek gehiengo osoa beharrezko izango dute, Legeak hala ezartzen duen kasuetan.

22. artikulua.- Gobernu Batzaren funtzionamendu eraentza.

Gobernu Batzak hileroko aldizkakotasunez burutuko ditu bere batzarraldi arruntak. Ez-ohiko batzarraldiak Lehendakariak deitu edo bokalen erdiak hala eskatuta burutuko dira.

V TITULUA **OGASUNA**

23. artikulua.- Finantza baliabideak.

Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Ogasuna hurrengo baliabideek osatzen dute:

- a) Bere ondaretik eta Zuzenbide pribatutik eratorritako mozkinak.
- b) Ustiapen zerbitzuetatik lortutako mozkinak.
- c) Tributu propioak. Horien ezarketa, antolaketa eta ordainarazpena Ordenantza Fiskaletan arautuko da.
- d) Autonomia Erkidegoko tributuetako partaidetzak.
- e) Diru-laguntzak.
- f) Hitzarturiko kreditu operazioen produktuak.
- g) Zuzenbide publikoko beste prestazioak.

24. artikulua.- Sarrerren atxikitzea.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateak lortutako sarrerak, horren sorrera edo bilketa eragin zuten zerbitzu edo egintzen betepenari atxikiko zaizkio.

25. artikulua.- Udalen erantzukizuna.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatea osatzen duten Udalek, horren zorrak kitatzeko betebeharra izango dute, betiere zuzenbidezko biztanle kopuruarekin proportzioa mantenduz eta baliabide propioak nahiko ez diren heinean.

26. artikulua.- Ordenantza fiskalak.

1.- Baliabideen ezarpena, ordainarazpena, likidazioa eta ordainketa lortzeko Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateak zerbitzu ezberdinei dagozkien Ordenantzak onartuko ditu. Ordenantza horiek Mankomunitatea osatzen duten Udal guztientzako indar betearazlea izango dute, behin onartuta daudenean.

2.- Udalei dagokie Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateari, eroldaren eraketa, alta, baja eta aurreko artikuluetan jasotako helburuak betetzeko ematen diren zerbitzuek ukitutako zergadunen gain eraginik duten aldarazpenei buruz beharrezko informazioa eskaintzea. Informazio hori luzatzerakoan ezin izango da inola ere, pertsonen intimitaterik ukitu, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako legeriak ezarritakoa aintzat hartuz.

3. Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateak, baliabide propioak erabiliz eta edozein momentutan, aurreko paragrafoan jasotako datuen egiazkotasun eta zehaztasuna ikertu ahal izango du.

27. artikulua.- Ekarpn ekonomikoak.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Zinegotzien Bilkurak Mankomunitatea osatzen duten Udalek urtero egin beharreko ekarpenak zehaztuko ditu, bere kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz. Ekarpn horiek hurrengoak izango dira:

a) Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateak eskainitako zerbitzu eta horiek Udalean emateko proportzioaren araberrako kuota nagusi bat, betiere udal zerbitzua arautzen duen ordenantzan ezarritakoa kontutan izanik.

b) Mantenu eta administrazio gastuei aurre egiteko kuota osagarria, zerbitzuak eskaini edo ez eskaini kontutan hartu gabe eta udal eroldaren araberrako zuzenbidezko biztanleriaren proportzioa gordez.

28. artikulua.- Ekarpnen ezaugarriak.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateari Udalek egin beharreko ekarpenek derrigorrezko eta lehentasunezko ordainketen izaera dute Mankomunitatea osatzen duten erakundeentzako.

29. artikulua.- Ordainketen forma eta epea.

1.- Udalen ekarpen ekonomikoak Zinegotzien Bilkurak zehaztutako era eta epean burutuko dira. Udalen batek kuota hiru hilabete baino gehiagoko atzerapenez ordainduko balu, Lehendakariak bere ordainketa eskatuko du hogei eguneko epean. Epe hori ordainketa egin gabe igarota, Lehendakariak dagozkion kuoten atxikipen prozedurari hasiera eman diezaiolke. Horretarako, Udal zordunaren mesedetan likidatutako kantitateen kargura burutuko dira atxikipen horiek.

2.- Atxikipen hori Mankomunitatea osatzen duten Udalek onartu egiten dute Estatutu hauek onartzeko momentu beretik aurrera.

3.- Udalen batek behin baino gehiagotan zorrak izateak Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatea ahalbideratzen du Udal hori Mankomunitatetik behin-betizko banatzeko, zor den kopurua eta eragindako gastuak artikuluko honetako 1 eta 2 paragrafoan ezarritako eskaera prozesua erabiliz eskuratuko dira.

VI TITULUA
MANKOMUNITATEAREN ONDAREA

30. artikulua.- Ondarea.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen ondarea, Mankomunitatearen sorreran bertan edo ondoren lortutako edozein motatako jabetza publikoko edo patrimonialak diren ondasun, eskubide eta akzioek osatzen dute. Gaiari buruz indarrean dagoen legeriak ezarritakoa jarraituz, ondare horren zehaztapenak jasoko dituen Inbentario bat eramango du Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateak.

2.- Mankomunitatea osatzen duen Udal bakoitzak ondarean duen partaidetza, bai hasieran eta baita ondoren ere zehaztu daiteke, Udal bakoitzaren eroldaren araberrako biztanleria eta Estatutu honetako 27.1 a) artikuluan jasotako irizpideak kontuan harturik.

VII TITULUA
ATXIKITZE ETA BANATZE ERAENTZA

31. artikulua.- Kide berrien atxikitzea.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatean Udal berri bat sartu ahal izateko beharrezko izango da:

- a) Interesa duen Udalak eskatzea, Osoko Bilkuraren gehiengo osoz akordioa onartuz.
- b) Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Zinegotzien Bilkuraren bokalen gehiengo osoaren aldeko botoa.
- c) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitarapena burutzea eta Bizkaiko Toki Erakundearen Foru Erregistroan inskripzioa eragitea.

2.- Hasierako ekarpena eta Udalek eratu osteko Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatean sartzeko beharrezko diren gainontzeko baldintzak atxikitze akordioan ezarriko dira. Hasierako ekarpen hori Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen ondare indizeari, atxikitzea eskatu duen Erakundearen legezko biztanleria biderkatuz lortuko da.

Eragiketa horretatik ateratzen den kuota, Toki Erakundea Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatean sartzeko unean eskatuko da.

3.- Halaber, Udalak Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatean sartzeko dakartzan gastu guztiak ordainduko ditu.

4.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatea sortu ondoren atxiki den Udalak gutxienez 4 urte igaro beharko ditu Mankomunitatean.

32. artikulua.- Borondatezko banatzea.

1.- Udalak, Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatetik borondatez banatzeko, beharrezko izango da:

- a) Interesa duen Udalak erabakitzea, bere legezko kideen gehiengoaren aldeko botoz.
- b) Zinegotzien Bilkuraren bokalen gehiengo osoaren aldeko botoa.
- c) Interesa duen Udalak Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateari zor dizkion kopuruak egunean izatea eta Estatutu hauetako 31.4 artikuluan ezarritako gutxienerako urte kopurua igaro izana.
- d) Banaketak dakartzan gastu guztiak eta Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitateak bere kargura pasiboan ekarritako zatia ordaindu izana.
- e) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitarapena burutzea eta Toki Erakundearen Foru Erregistroan inskripzioa eragitea.

33. artikulua.- Banaketaren ondoriozko likidazioa.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatetik Udal bat edo gehiago banatzeak ez du derrigorrez horren likidazioa ekarriko, Mankomunitatea azkendu arteko momentura geroratu baitaiteke operazio hori. Hala ere, Mankomunitatetik banatutako Udalak edo Udalek zerbitzu propioak eskaintzeko beharrezko diren ondasunak Mankomunitatera ekarri izan balituzte, interesa duten Udalen kontrako akordiorik ezean, zatikako likidazio bat egingo da, ondasun horiek Udalei bueltatzeko asmoz.

2.- Banatutako udalek ezingo dute, aurreko paragrafoan ezarritakotik at, bere udal mugartean dauden Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen ondasun eta zerbitzuen gaineko jabetza eskubiderik alegatu.

34. artikulua.- Derrigorrezko banatzea.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatea osatzen duten Udaletatik edozeinek dagozkion legeetan edo Estatutuetan jasotako betebeharrak hautsi ezkerok, Mankomunitateak Udal horren banatzea erabaki dezake Zinegotzien Bilkura osatzen duten kideen bi herenen aldeko boto bidez.

2.- Banaketa honen ondoriozko eraginak aurreko artikuluan borondatezko banaketarako ezarritakoaren berdina izango dira.

VIII TITULUA

ESTATUTUEN ALDARAZPENEA ETA MANKOMUNITATEAREN AZKENTZEA

35. artikulua.- Aldarazpena.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen ekimenez edo gutxienez Zinegotzien Bilkuraren herenak hala eskaturik, Mankomunitatea osatzen duten

Udalek estatutuen aldarazpena onartuko dute euren legezko kideen gehiengo osoz.

2.- Estatutuen aldarazpena onartuta 30 egunez Bizkaiko Aldizkari Ofizialean aldarazpen horri dagokion iragarkia argitaratuko da. Epe hori igarota, aldarazpena Bizkaiko Foru Aldundiaren txostenaren mende jarriko da.

3.- Estatutuen azken aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Bizkaiko Toki Erakundearen Foru Erregistroan inskribatuko da.

36. artikulua.- Mankomunitatearen azkentzea.

Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatea hurrengo kariengatik azkendu daiteke:

- a) Sorrera helburuak betetzeko ezintasuna.
- b) Legezko xedapen baten ondorioz.
- c) Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Zinegotzien Bilkurak eta Mankomunitatea osatzen duten Udalen gehiengoaren legezko kideen gehiengo osoz hartutako erabakiaren ondorioz.

37. artikulua.- Desegite prozesua.

1.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen desegite osoak, Estatutuen aldarazpenerako beharrezko diren izapideak eskatuko ditu, artikuluko honetako hurrengo paragrafoetan jasotako berezitasunak kontutan izanik.

2.- Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen Zinegotzi Bilkurak, Udal akordioak jaso eta hurrengo 30 egunetan, Likidazio Batzorde bat izendatuko du. Batzorde hori Lehendakariak eta gutxienez lau Bokalek eta aholkularitza funtzioak beteko dituen Idazkariak eta balego Kontu-hartzaileak osatuko dute. Batzarraldietara aditu zehatz batzuk deitu daitezke, bere jakintzagaien inguruan bere iritzia entzun edo txosten edo irizpenak jasotzeko.

3.- Batzordeak Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen ondasun, zerbitzu eta eskubideen Inbentario bat egin beharko du hiru hilabeteko epean. Batzordeak Mankomunitatearen baliabide, karga eta zorrak zehaztuko ditu, eta langileria zerrendatuko du, ondoren Erakundearen Zinegotzien Bilkurari horien banaketa Mankomunitatea osatzen duten Udalen artean proposatuz, betiere ondarea eratzeko orduan kontutan izan diren datuen arabera.

Likidazio ekintzen egutegia zehaztea ere Batzordearen lana izango da. Hala ere, likidazioak ezingo du iraun sei hilabete baino gehiago.

4.- Likidazio proposamena baliozkoa izan dadin, beharrezko izango da Erakundearen Zinegotzien Bilkuraren kideen gehiengo osoaren aldeko botoa. Behin onartuta, proposamena loteslea izango da Mankomunitatea osatzen duten Udalentzat.

5.- Desegite akordioak Uribe Butroe Zerbitzu Mankomunitatearen ondasunen likidazioa burutzeko modua zehaztuko du. Ondasun horiek ekarpenak egindako

proportzioan banatuko dira; ondasun higikorrek eta zerbitzuak euren kokapena zein izan eta udal horri emango zaizkio lehentasunez.

Zerbitzuak Uribe Butroen Zerbitzu Mankomunitateari eskuordetu zaizkion kasuetan, Mankomunitatea desegitean ezarriko dira zerbitzu horien itzulketa baldintzak.

XEDAPEN OSAGARRIAK

Lehenengoa

Mankomunitatea osatzen duten Toki Erakundeen Erregistroek Uribe Butroen Zerbitzu Mankomunitatearen eskourdetutako erregistro izaera izango dute, agirien sarrera, irteera eta aurkezpenarako.

Bigarrena

Udal bakoitzaren Errolda, ekitaldi bakoitzean eguneratuko da urtarrilaren 1ean, Mankomunitatearen azkentze eta Estatutu hauetan jasotako beste inguruabarretarako.

Hirugarrena

Mankomunitatearen egintza administratibo eta ekonomikoak modu hobe batean garatzeko helburuarekin, lehendakari biraketa txandak urte natural osoari egokituko zaizkio. Gobernu Batzak erabakiko du lehenengo lehendakari txanda luzatu edo laburtzea, urte naturalen sistema horri egokitzeke.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra

Estatutu hauetan jasotzen ez denari dagokionez, Toki Erakundeen legerian eta gainontzeko administrazio legerian ezarritakoa izango da aplikagarri.